

HASIERA



GAIAK ▾

ANTZERKIA ARTEBERTSOLARITZADANTZAKERAKUSKETAEUSKARA  
IRITZI ARTIKULUA JAIALDI AKJARDUNALDI AK LITERATURAMUSIKAZINEMA  
BESTELAKOAK

ATALAK ▾

KONTALARIAK BEZELAK BULETINAMULTIMEDIA GURE BAZTERRETATIK  
KS ARETOA

HERRIALDEKA ▾

ARABANAFARROA BEHEREABIZKAIAGI PIZKOALAPURDINAFARROA  
ZUBEROA EUSKALHERRIA

ZOKETAK ▾

DENDAOSTEKOAKAMAK

HOME / GAIAK / LITERATURA / [BIDEOA] NEREA LOIOLAK 'EPIZENTROA', HELDUENTZAKO LEHEN IPUIN LIBURUA KALERATU DU



GIPUZKOA LITERATURA NABARMENDUAK PORTADAN

## [BIDEOA] NEREA LOIOLAK 'EPIZENTROA', HELDUENTZAKO LEHEN IPUIN LIBURUA KALERATU DU

By Ainhoa Loes Aranda / 2021-06-08

**Idazleak arreta handia jarri du harremanetan, keinuetan, gauza txikietan eta xehetasunetan. Zazpi narraziok osatzen dute liburua eta denetan emakumezkoak dira protagonista.**

Nerea Loiolak (Deba, 1985) 2018an eman zuen argitara haurrentzako *Harri bat poltsikoan* izeneko liburua. *Azken lan hūtarra* lanak jarraitu zion aurreneko liburu horri 2019an. Oraingoan, helduentzako literaturara saltoa ematea erabaki eta *Epizentroa* izeneko ipuin liburua aurkeztu du Donostian, **Erein** argitaletxearen eskutik.

Zazpi narraziok osatzen dute liburua eta denetan emakumezkoak dira protagonista, adin eta ezaugarri desberdinetakoak. Kontakizunak autonomoak direla dio egileak, "ez ditu denak elkartzan dituen azpiko haririk, baina badu osotasun bat, gai mordoak atera dira eta amankomunak dira liburuan: gurasotasuna, desioa, sexua, harremanak, nahiak, ezinak eta zoriontasunaren eraikuntza". Hala ere, giza harremanetan ezarritako ardatzak eta erabakien inguruko aferak osotasuna ematen diote liburuari.

Loiolak arreta handia jarri du harremanetan, gauza txikietan eta xehetasunetan. "Gure buruan errotzen doazen erabakien eta erabaki horiek benetan gauzatzearen artean dagoen amildegian kokatzen dira sarri ipuin hauetako pertsonaiak", hau da, alde batetik erabakiak hartzeko ataka konplikatu hori daukagu, baina, ondoren, askotan zailagoa izaten dena, erabakitako hori gauzatzearena".

Estilo finarekin idatziak, ipuin labur eta freskoak direla dio Debako idazleak, beti giza harremanen ardatzaren jiran. Inazio Mujika editorearen hitzetan, "apaindurarik gabeko hizkuntza" da Loiolarena, "efizientea eta efikaza. Zuzen eta zehatz murratzen ditu gaiak eta pertsonaiak".



Zabaldu:



Tags: Epizentroa, Erein argitaletxea, Euskal Literatura, Nerea Loiola

← NIZURI TAZUNERI TALDE DONOSTIARRAK 'ANUBIS' DISKOA KALERATU DU

MONTEHERMOSO-EUSKARAREN ETXEA BELAR SOUNDS MUSIKA PROGRAMA ANTOLATU DU UDAKO ASTEBURUETARAKO →

BILATU

Bilatu ...

BILATU



Lege oharra

✉ [albistak@kultursharea.eus](mailto:albistak@kultursharea.eus)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
Kultura eta Hizkuntza Politikako Departamentuaren (Departamentuak) duela lepidua



# KULTUR SHAREA

ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU

